

Enpresagintza Fakultateak graduako eta batxilergoko ikasleei zuzendutako Gizarte Erantzukizunari buruzko jardunaldia antolatu du, herriko arazoentzako irtenbideak bilatzeko asmoz.

2014/02/26

Mondragon Unibertsitateko eta Oñatiko batxilergoko 120 ikaslek gogoeta eta lan egiten jardungo dute gaur, gizarte-erantzukizunaren ikuspegi batez, gazteek eurek Oñatin antzemandako benetako arazoei irtenbideak bilatzeko xedez.

Hitzordua Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultatearen Oñatiko campusean izango da. Hain zuzen, bertan burutuko da GazteRS izeneko gizarte-erantzukizunari buruzko jardunaldia, Mondragon Unibertsitateko Enpresen Administrazioako eta Zuzendaritzako Graduak (GADE) eta Lidergo Ekintzaileko eta Berrikuntzako Graduak (LEINN) ikasleak ez ezik, Oñatiko batxilergoko azken mailetakoa eta prestakuntza zikloetako ikasleak ere bilduko dituena.

Gizarte-erantzukizunaren inguruko kultura bultzatzea da xede nagusia. Horretarako, gogoeta-jardunaldi trinkoa egingo dute hainbat eremutako ikasleek, gairik garrantzitsuenen inguruan hausnartzeko asmoz.

Jardunaldiak hainbat asmo ditu: gero soluzioa diseinatzeko benetako arazoak identifikatzea, adin desberdinetako pertsonen arteko gizarte-kohesioa bultzatzea, partaideen artean esperientziak trukatzeko, eta benetako arazoei elkarlanean irtenbideak emateko konpetentziak eskuratzea. Goizean zehar proposamenak garatu ostean, eta jardunaldiari amaiera emateko, herriko benetako arazoei irtenbidea aurkitzeko ikasleek aurkezturiko proiekturik hoberena aukeratu da.

Proposamen hoberenaren saria

Jardunaldia bat dator Mondragon Unibertsitateak gizartea eraldatzeko duen konpromisoarekin, eta ikasleek gizartearen, ekonomiaren eta ingurumenaren alorreko benetako arazoetan oinarrituz lan egitea bilatzen du, horiei irtenbidea eskaintzeko.

Jardunaldia otsailaren 26an 08:30ean hasiko da, eta lehen zeregina gizarte-eginkizunaren esanahiari buruz hausnartzea izango da. Hala, irizpide etikoak ezarriz ingurunean dauden erronka nagusiei erantzuteko moduez arituko dira ikasleak. Ondoren, 09:30ean, diziplina anitzeko taldeak osatuko dira, gizartearen, ekonomiaren eta ingurumenaren alorretan, herriko arazo nagusiei irtenbidea eskaintzeko. Goizeko saioak arazo horiei erantzuna emango dioten irtenbideak lantzeko balio izango du, eta sortuko diren taldeek proposamenak eraikiko dituzte. 11:30etik 13:00etara, planteatutako arazoei irtenbidea emateko talde bakoitzaren proposamenak aurkeztuko dira. Arratsaldean, hiru finalistak (arlotan bakoitzeko bat) sarituko dira eta, azkenean, jardunaldiko proposamenik hoberena aukeratu (16:00-17:00) eta talde irabazleari sari berezia emango zaio.

